

BERRI OROKORRAK

2025eko azaroaren 7an


9. zenbakia

ZORIONAK!

Gau Beltzak irribarre argia utzi digu ikastolan: asko izan zarete euskal ohitura zaharra belaunaldi berrientzat berreskuratzeko ekimenean antolatu eta lanean aritu zareten gurasoak. Zuekin elkarlanean segitzeko ilusioa berpiztu digu honek.

Halaber, DBHko gazteen lana ere benetan eskertzekoa eta esanguratsua izan da jaia borobiltzeko.

Zorionak guztioi, jarrai ezazue horrela!



Ohar orokorra

Ikastolako eremu guztiak kerik gabeko eremuak direla gogorarazi nahi dizuegu eta ondorioz, erretzea guztiz debekatua dago.



Bazkidetza kuota

Azaroko erreziboarekin batera, urteko bazkide kuotaren kobrantza egingo dela jakinarazten da, 12,02 € familiako.



Jangela-zerbitzua

◆ Prezioak (3-16 urte)

	2025-2026 ikasturtea							
Bazkaldarraren perfila	urria	azaroa	abendu	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza
<i>Hilabeteka erabakiko du jangelara etortzea edo ez</i>	162,13 €	133,93 €	98,69 €	119,83 €	126,88 €	126,88 €	98,69 €	140,98 €
<i>Asteko 5 egunak etorriko da ikasturte osoan</i>	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €	126,00 €
<i>Astean 4 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira</i>	114,84 €	114,84 €	114,84 €	114,84 €	114,84 €	114,84 €	114,84 €	114,84 €
<i>Astean 3 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira</i>	82,70 €	82,70 €	82,70 €	82,70 €	82,70 €	82,70 €	82,70 €	82,70 €
<i>Irailean eta ekainean</i>	8,50 €							
<i>Menu Solteak</i>	8,50 €							

Norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du, gutxienez, bezperan 13:00ak aurretik. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko.



◆ Prezioak (0 - 3 urte)

Hileko prezioa, irailetik uztailera, **126 €** izango da. Norbaitek izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du, gutxienez, bezperan 13:00ak aurretik. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko.

Jangelako aisialdirako material bilketa

Jangela zerbitzua erabiltzen duten ikasleentzat material bilketa egin nahi dugu. Bazkal osteko aisialdi tarte horretan erabiltzeko izango litzateke. Talde txikitan bildu eta jolasean lasai jarduteko materiala nahiko genuke :

- Mahai jolasak (4-6 pertsona aldi berean jolasteko balio dutenak), neutroak direnak (saihestu pertsonaia famatu edo telebistako modako marrazkien jolasak).



- Euskarazko ipuin edo liburuak.



- Lurrean jartzeko "piknik"egiteko mantak.



Beraz, guretzat erabilgarria izan daitekeen materiala baduzu eta berrerabilpen honetara bideratu nahi baduzu, tutoreari helarazi mesedez. Seguru etekina aterako diogula. Mila esker, zuen eskuzabaltasunagatik.

Txokolatedun egutegiaren salmenta

Astelehena, azaroak 10, izango da Hendaiako ikastolak txokolate-egutegien salmenta-kanpainan parte hartzeko **azken eguna**. Egutegiaren **prezioa 12 eurokoa** da eta [galdetegi hau](#) betez egin daiteke eskaera.

Eskaeraren **dirua tutoreari** emango zaio.

Egutegiak azaroko azken astean jasoko dira.



Arberoa ikastolari laguntza

Pasa den urtean Arberoa ikastolak su hartu zuen, eta gastuei aurre egiteko kanpaina desberdinak jarri zituen martxan. Hona hemen Arberoa ikastolako [arropa salmenta!](#)



Errigora

Hemen da berriz Errigoraren Euskarari Puzka kanpaina, Nafarroa erdi eta hegoaldean lanean ari diren euskalgintzako eragileen (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) ezinbesteko lana sostengatzeko aukera.

Batu auzolan erraldoi honetara! [Saskiak](#) azaroaren 13ra arte eskatu daitezke eta balioaren %25a Ager zonaldeko euskalgintzara bideratuko da zuzenean. Ureztatu dezagun euskara denon artean!



HAUR-HEZKUNTZA

1-2 urteko eta talde mistoko ikasturte hasierako bilera

Asteazkenean, azaroak 12, arratsaldeko **17:00etan seme-alabaren gelan**, ikasturte hasierako bilera egingo da.

Ez da zaintza zerbitzua izango.

Bilerara haurrik gabe etortzea eskatzen da.



Ipuin kontaketak

Azaroan [ipuin kontaketa sorta](#) bat eskainiko da Sutegi Liburutegian:

- **2-3 urteko haurrei zuzenduta:** azaroaren 12an, asteazkenarekin, **18:00etan**, Sutegi Liburutegian, ipuin kontaketa saioa MIRIAM MENDOZAren eskutik, 2-3 urteko haurrentzat.
Heldu batek lagunduta etorri behar dute. Iraupena: 45 minutu.
- **4-5 urteko haurrei zuzenduta:** azaroaren 19an, asteazkenarekin, **18:00etan**, Sutegi Liburutegian, ipuin kontaketa saioa IXABEL AGIRRESAROBEn eskutik, 4-5 urteko haurrentzat. Iraupena 50 minutu.



GALDUTAKO GAUZAK

Ikastolako sarreran daukagun galdutako gauzen kutxa arropaz gainezka dago. Begiratu ia ikasleen arroparen bat falta zaizuen, eta hala bada, agian, bertan aurkituko duzue.



LEHEN HEZKUNTZA

Eskola osasun programa

Azaroaren 14an LH 6-ko ikasle baimenduek, eskola osasuneko programa barruan dauden ACWI meningokokoaren eta giza papilomaren birusaren kontrako txertoak jasoko dituzte.



LH 3ko irteera kobrantza

Mezu honen bidez jakinarazi nahi dizuegu, **azaroaren 14ean**, ostirala, LH 3ko ikasleekin maiatzean Irrisarrira egingo dugun irteeraren lehen zatia kobratuko zaizuela (30€).



Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa

LH3tik DBH3rako ikasleek azaroan zehar Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa programan parte hartuko dutela jakinarazten dizuegu.


Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamenduak bultzatu du eta Gipuzkoa osoko haur eta nerabeen ongizateari buruzko pertzepzioa ezagutzea du helburu.



Zuen seme-alabaren bitartez, programa honetan parte hartzeko **baimen-orrria** jasoko duzue. Mesedez, **azaroaren 11rako tutoreari sinatuta** eman.

Ikasleekin pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua

Lehengo astean hasi eta datorren astera bitartean, Udarregi Ikastolako LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egingo dituzte Miren Rosekin. Ondoren, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei bilera batean.



Gurasoeekin bilera, **azaroaren 19an, asteazkena, 17:00etan**, Agerialdeko 3. solairuan. Parte hartzeko asmoa baduzu, mesedez, bete [galdetegia](#) azaroaren 14a baino lehen.

Galdutako gauzak


Ikastolako sarreran daukagun galdutako gauzen kutxa arropaz gainezka dago. Begiratu ia ikasleen arroparen bat falta zaizuen, eta hala bada, agian, bertan aurkituko duzue.



DBH

Ikasleekin pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua

Lehengo astean hasi eta datorren astera bitartean, Udarregi Ikastolako LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egingo dituzte Miren Rosekin. Ondoren, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei bilera batean.



Gurasoeekin bilera, **azaroaren 19an, asteazkena, 17:00etan**, Agerialdeko 3. solairuan. Parte hartzeko asmoa baduzu, mesedez, bete [galdetegia](#) azaroaren 14a baino lehen.

Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa

LH3tik DBH3rako ikasleek azaroan zehar Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa programan parte hartuko dutela jakinarazten dizuegu.

Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol departamenduak bultzatu du eta Gipuzkoa osoko haur eta nerabeen ongizateari buruzko pertzepzioa ezagutzea du helburu.

Zuen seme-alabaren bitartez, programa honetan parte hartzeko **baimen-orria** jasoko duzue. Mesedez, **azaroaren 11rako tutoreari sinatuta** eman..

